

#Bilborock23urte

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Bilborock-ek 23 urte beteko ditu apiril honetan. Hori dela-eta, Bilboko Udalaren Gazteria Sailak #Bilborock23urte kanpaina abiaraziko du. Kanpainan parte hartuko duten pertsonen artean Fnac.es-en erosteko opari-txeke bat zotz egingo da.

Helburuak:

Ibilbide bat egitea Bilborock-en 23 urteotan zehar, eta epe horretan jendearen gogokoen izan diren jarduerak eta ekitaldiak gogoraraztea. Horretarako, gure jarraitzaileak gonbidatzen ditugu erakuts ditzaten sare sozialetan hari buruz dauzkaten oroitzapenik onenak.

Kanpainaren eta zozketaren dinamika:

Udalaren Bilbao Gazte web-orriak Bilborocken 23. urteurrenean emango du argitara berria, apirilaren 20an. **Bilborock-en** sare sozialetan zabalduko da berria, kanpainan parte hartzera gonbidatuz.

Zeintzuk dira zure oroitzapenik onenak Bilborocken 23 urte honetan? Zein izan da gogokoen izan duzun ekitaldia? Parteka itzazu Bilborock-eko argazkirik eta oroitzapenik onenak!

Parte hartu nahi duten pertsonak bi bide izango dituzte:

1. Bilborock-en post-ari erantzunez, zure ekitaldirik gogokoena edo oroitzapenik onena zein izan den aipatzeko.
2. Bilborock-eko oroitzapenik onenaren argazki bat argitara emanaz Facebook-eko zure profilaren bidez. Hala eginez gero, ezinbestekoa izango da **#Bilborock23urte** traola aipatzea eta **@bilborockaretoa** etiketatzea.

Ekintza bakoitzarekin (erantzun batekin edo norberaren post batekin) zozketan parte hartzeko aukera bana irabaziko da. Zozketa zorizkoa izango da guztiz.

Nork parte har dezake?

Edozein pertsonak, Bilborock-en edo Bilbao Gazte-ren sare sozialetarako sarbidea badu.

Epeak:

Parte hartzeko epea kanpaina argitara ematen den egunetik hasi (2020ko apirilaren 20an, 23:59an) eta 2020ko maiatzaren 31ra arte izango da.

Maiatzaren 4an, irabazlearen izena emango da jakitera.

Saria:

Zozketan irabazle ateratzen den pertsonak **txeke bat jasoko du opari, 80 eurokoa, fnac.es-en erosteko.**

Saria jasotzeko, irabazleak posta elektronikoko helbide bat eman beharko die antolatzaileei.

Informazio gehiago:

BILBOROCK

94 415 13 06

bilborock@bilbao.eus

